



KONTZERTUAK ◉ Hiru egunean hamaika talderekin gozatzeko aukera izaten da. Argazkian, Sorkun, iazko jaialdian. GORKA RUBIO / ARGAZKI PRESS

Bertsoetatik kontzertu erraldoietara

Sagarrondotik jaialdiak bosgarren urtea beteko du aurten, eta antolatzaileek asteburu berezia antolatu nahi dute

◉ Sagardo garaia gori-gorian dagoela izaten da Sagarrondotik jaialdia. Lau urteren buruan erreferentzia bihurtzea lortu du, gehienbat gazteen artean. Aurtengoa martxoaren 16, 17 eta 18an izango da, eta bosgarrena izanik, antolatzaileek jaialdi berezia antolatzeko asmoa erakutsi dute.

Sagardoaren kultura hedatzea eta sagardoaren lurraldera kultura ekintzak eramatea da antolatzaileen asmo nabarmenena. Sagardoaren lurraldean diren lau udalerriak (Astigarraga, Her-

nani, Urnieta eta Usurbil) zein urterik urtera bertaratu diren pertsona eta artistak, hiru egunez, sagardoaren festa handian murgiltzen dira.

2003an jaio zen Sagarrondotik, Sagardoaren Kultura Sustatzeko Elkartearen eskutik. Sagardoaren bueltako jai erraldoi hau txotx garaiko asteburu bakar batean ospatzen da eta adin guztietako jendearentzako ekintza ugari biltzen ditu.

Inma Otamendi Sagarrondotik-eko antolatzaileetako baten ustetan, sagardoa bizitzeko

modu bat da: «Sagardoaren kultura diogunean ez gara soilik edariaz ari», dio Otamendik. «Sagardoak bizitzeko modu oso bat islatzen duela uste dugu, eta berai sustatzeko eta indartzeko festa handia izan nahi du Sagarrondotik jaialdiak, lau udalerrietako (Urnieta, Usurbil, Astigarraga eta Hernani) eta mundu osoko adin guztietako pertsonengana zabaltzeko».

Musika jaialdia izaten da Sagarrondotik-en edukirik erakargarriena. Aurten, kontzertuak Hernanin izango dira,

aurreko urteko karpa berean. Jaialdia kolore anitzekoa izan da beti, eta halakoxeak dira bertan izaten diren taldeak ere. Flamenkoa, rocka, hip-hopa, reggaea, funky... hainbat estilo jaialdi bakarrean biltzen ditu.

«Tradizioa eta berrikuntza uztartzeko ahalegina egiten dugu», dio Otamendik, «belaunaldi guztiak sagardoaren kulturara inguratzea eta sagardoaren kultura belaunaldi berrien aisialdian inguratzea baitira kultura biziberritzeko modu bakarrak».

Aurreko lau urteetan, nazioar-

URTEURRENA

Aurtengoa

martxoaren 16, 17 eta 18an egingo dute eta, bosgarrena izanik, berezia izango da

JOERAK

Kolore anitzeko jaialdia da beti, eta rocka, flamenkoa, hip-hopa, reggaea eta funkya dantza daitezke

IKUSLEAK

Urtetik urtera jende gehiago bildu da, eta azkenaldian, batez beste, 14.000 lagun izan dira jaialdian

teko zein Euskal Herriko taldeak elkartu ditu betiere jaialdiak: Desmond Dekker (Jamaika), Fermin Muguruza, Orisha's (Kuba), Raimundo Amador (Espainia), Su ta Gar, Chambao (Espainia), Berri Txarrak, The Wailers (Jamaika), Banda Bassotti (Italia)...

Bildu izan den jende kopurari dagokionez, urterik urte kopurua igotzen joan dela diote antolatzaileek. Azken urteetan, batez beste, 14.000 lagun inguruk parte hartu dute jaialdian, asteburu bakar batean.

Herri kirolak

Baina musika jaialdia dela-eta ezagun egin bada ere, hori baino gehiago da. Asteburu bakarrean eta kontzertuez gain, sagardo dastatzea, eskulangintza azoka, bertsolariak eta lau herrien arteko herri kirol lehia ere izaten dira.

Azken horrek azken urteetan arrakasta handia lortu du, eta Astigarraga, Urnieta, Usurbil eta Hernaniko profesionalak ez diren gazteak eta hain gazteak ez direnak aritzen dira kirol jardunean, egun honetarako bereziki prestatu ondoren.



Hernaniko Udala

Sagardoa ta bizimodua gazi, gozo eta gezamin mama goxua punttu-punttuan orain geronek irakin lagun, familia, enpresa, eskola egin txox lasai denakin urteberria non gozatua izango dezu Hernanin.

(Jexux M^a Irazu)